

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Biriketako minbizia da Nafarroako 45-64 urte arteko emakumeen lehenengo heriotza-arrazoia, bularrekoa bigarren postuan utzita

*Kasuen % 85 tabakoari lotuta daude, berriki sortutako Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokiak patologia horri buruz egindako azterketaren arabera*

Ostirala, 2016.eko abenduak 2

Biriketako minbizia Nafarroako 45 eta 64 urte arteko emakumeen artean lehenengo heriotza-arrazoi bihurtu da, eta bularrekoa bigarren postuan utzi du orain. Hala ondorioztatzen da berriki sortutako Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokiak (OSCN) patologia horri buruz egindako azterketa batetik.

Azterketak egiaztatzen du, gainera, biriketako minbiziagatiko heriotza-tasa 65 urtetik beherako emakumeen artean bostgatik biderkatu dela azken 20 urteetan; adin-tarte bereko gizonezkoetan, berriz, jaitsi egin da 2011 eta 2015 artean. Joera hori Europar Batasunean ere erregistratzen da; han, gizonezkoen heriotza-tasa % 20,8 jaitsi da, eta 2003 eta 2014 artean, aldiz, % 71,9 igo zen.

Bestalde, azken bost urteetan biriketako minbiziak eragindako heriotzak heriotza guztien % 5,7 ziren eta minbiziagatik hildako pertsonen % 19,5. 2008 eta 2010 artean, urtean 363 kasu diagnostikatu ziren batez beste, haien % 80 gizonezkoetan. Kasuen % 85 tabakoari lotuta dagoela uste da.

### Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokia

Nafarroako biriketako minbiziaren egoerari buruzko azterketa hori berriki sortutako Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokiak egindako lehenengoetako bat da. Behatoki hori Nafarroako osasun kolektiboari buruzko informazio guztia sortu, aztertu, batu, antolatu eta komunikatzeko tresna bat da; horrenbestez, administrazio publikoek eta osasuneko beste eragile batzuek beraien politikak eta jarduerak lurralde-eremu bakoitzera egokitu ahalko dituzte eta desorekak murriztu.

Osasun-gaiei dagokienez, behatokiaren jardueraren esparruetako bat, haurren obesitateari eta osasun-desorekei buruzko azterketak egin dira gainera, honako hauek aztertuz: gaixotasun kroniko eta errenta-mailaren arteko harremana, jaiotzean dagoen bizi-itxaropena eskualdeka eta osasun-zonaldeka, heriotza-tasa eta ikasketa-maila, edo tabakoaren kontsumoa eta ikasketa-maila, besteak beste,

Halaber, behatokia Nafarroako osasun-egoeraren profil bat egiten ari da gaur egun zonalde geografikoen arabera, maila ezberdinetako osasuneko adierazle batzuk aztertuz: Nafarroa, Osasun Arloa; eskualdea;

eta Osasunaren Oinarrizko Zonaldea. Osasun Zonaldearen profilaren barnean 25 adierazle sartzen dira, haien artean: biztanleria zahartzea, pobrezia-arriskua, hezkuntza-mailak, langabezia, bizi-itzaropena, heriotza-tasa goiztiarra, diabetesa, gehiegizko pisua, tabako eta alkoholaren kontsumoa, edo haurrentzako txerto-estaldura. Zonalde bakoitzerako profilak hurrengo urteko lehen sei hilekoan egingo direla aurreikusten da, eta baita Nafarroako batez bestekoari dagokionez ere. Horrenbestez, osasun-arloan inplikaturako tokiko gizarte-eragile guztien lana erraztuko da.

Behatokiak sortutako informazio guztia [OSCN](#)ren webgunean izango da eskuragarri; haren bidez egindako azterketen emaitzak zabalduko dira eta herritarrek egindako iradokizun nahiz ekarpenak jasoko.

### **Proiektu estrategikoa**

Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokia Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak legealdi honetan duen proiektu estrategikoetako bat da, Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioei jarraiki. OMEk "osasun-adimen bat" erraztea onartu du osasun komunitarioaren behatokiaren misio orokor gisa; hari esker, tokiko osasun-beharrei hobeto erantzungo zaie, eraginkortasun handiaqoarekin, askotariko sektore, erakunde, elkarte, enpresa eta gizarte zibilaren artean lankidetzan.